

KONTROL MOZIOA

DONOSTIAKO ESKOLA PUBLIKOETAN EGITEN DIREN LANEI BURUZKOA,

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko urriaren 14ean Pertsonen Zerbitzuetako Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Hainbat gurasok eta eskola komunitatek haien kezka eta haserrea adierazi dute azken aldian eskoletako lanak direla eta. Horren gertuko bi adibide ditugu: Harri Berri eta Katalina Erauso eskoletan gertatutakoak.

Bi kasuetan, eskolan egindako lanak uste baino gehiago atzeratu dira, ikasturtea hasi zenean oraindik lanetan ari ziren bertan eta horrek hainbat eragozpen sortu zituen ikastetxearen funtzionamenduan.

Baina hau ez da eskoletako lanekin aurkitu dezakegun adibide bakarra. 2017an Antigua auzoko Jakintza ikastolan egindako lanek ere arazoak sortu zituzten eskola komunitatean.

Egoeraren larritasuna ikusita, Udal Gobernuak irtenbideak eman zituen kasu hauetan guztietan, baina behar baino beranduago eta eskola hauetako gurasoek eta zuzendaritzak bultzatuta gehienetan.

Argi dago horiek ez direla eskola batek izan behar dituen baldintza egokiak, ez umeentzat ez bertako irakasleentzat. Alde batetik, eguneroko eskolaren funtzionamenduan eragin zuzena duelako eta bestetik, kasu batzuetan segurtasun-falta egon delako.

Jakina da jada beste hiru eskoletan lanak egiteko aurrekontuak onartuta daudela:

- Intxaurren ikastolako patioaren zati baten estalketa.
- Amara Berri ikastolako patioak birbanatzea eta formatzea.
- Amassorrain ikastolako ikasgela batzuk berritzea.

EH Bildutik ez genuke nahi etorkizuneko lan horietan ere, orain arteko atzerapenak eta arazoak errepikatzea, eskoletan egiten diren lanak eta eskola-egutegiak kontuan hartu beharreko alderdiak baitira, eta halako egoerek herritar askoren artean kezka eta ezinegona sortzen baitituzte.

2019ko urriaren 14ean Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean Hezkuntzako zinegotzi ordezkariak 2019. urtean zehar eskola askotan egindako lanen berri eman zuen, eta eskertzekoa da. Baina emandako informazio gehiena, obra txikiei buruzkoa zela iruditu zitzaigun. Eta egun arazo handiena hiru hilabete edo gehiagoko epea eskatzen duten lanetan dagoela azpimarratu nahi dugu. Horietan jarri beharko genuke arreta beraz.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari eskola publikoetan egiten diren lanen hasierako epeak betearazi ditzala.
2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari eskola publikoetan egiten diren lanetan, atzerapenak gerta litezkeen egoeretan eskolak beharko lituzkeen irtenbideen aurreikuspena egitea.
3. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari eskola publikoetan aurreikusi gabeko arazoak edo atzerapenak gertatzen direnen, horien aurrean eskola komunitatek behar dituen irtenbide edo bitarteko teknikoak proposatzea.
4. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari eskola publikoetan egiten diren lanen berri ematea eskola komunitateari gardentasunez eta gertutasunez.

Donostian, 2019ko urriaren 18an



Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia